



MENDEBALDEKO SAHARAKO SU-ETENAREN AMAIERAREN AURREAN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EGITEKO PROPOSAMENA

2020ko azaroaren 13an, Marokoko Indar Armatuak nahita urratu zuten 1991tik indarrean dagoen Marokoko Erresumaren eta Fronte Polisarioaren arteko Su Eten Akordioa.

Marokoko Erresumak Guerguerateko legez kanpoko pasabidera indar militarrek bidali zituen, duela lau astetik eremu horretan manifestazioak egiten ari ziren saharar herritarrak erreprimitzera.

Marokok 2001ean ireki zuen pasabide hori, Nazioarteko Zuzenbidea urratuz. Nazio Batuen Bake Akordioak (1988) eta Marokoren eta Fronte Polisarioaren arteko akordio militarrek Marokoko harresi militarrean pasabideak irekitzea debekatzen dute.

Indar marokoarren erasoaldiak eta Fronte Polisarioak saharar populazio zibilaren defentsan emandako erantzun legítimoak harresian zehar hainbat liskar eragin ditu. Saharako Errepublikar Arabiar Demokratikoko Presidenteak, adierazpen baten bitartez amaitutzat eman du Fronte Polisarioak eta Marokoko Erresumak 1991n sinatutako su-etena konpromisoa.

Gertakari horien aurrean Arrasateko udala-k, Sahara Euskadi Mugimenduari eta Euskadiko Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera:

- **BERRESTEN DUGU** zalantzarik gabeko elkartasuna diogula saharar herriaren eta haren legezko ordezkaritza Fronte Polisarioaren borrokari.
- Marokoko Erresumari **EGOZTEN DIOGU** 1991n Su-Etena apurtu izana, eta sortu den eta Magrebeko eskualde osora zabal daitekeen ezegonkortasunaren erantzunkizuna.
- **MINURSO**ri eta Nazio Batuei eremuan segurtasuna eta sahararren giza eskubideen zaintza bermatzeko **ESKATZEN DIOGU**; eta, besterik gabe, autodeterminazio-erreferendumaren bidez, Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide bidezkoa eta behin betikoa sustatu dezatela.
- Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeari Mendebaldeko Sahararen gertatzen den guztiarengatik dituen erantzukizunak bere gain har ditzala **ESKATZEN DIOGU**; izan ere, Lurralde Ez-autonoma da, Marokok legez kanpo okupatua, NBERen agindupean, eta gatazkan dauden bi aldeak Genevako Hitzarmenaren sinatzaileak dira.
- Espainiako gobernuari Mendebaldeko Sahara "de iure" administratzen duen potentzia gisa duen erantzukizuna bere gain har dezala **EXIJITZEN DIOGU**; eta horren arabera

joka dezala, autodeterminazio-erreferendumaren antolaketan eta Saharako biztanleria zibilaren babesean parte aktiboa izanik

- Sahara Euskadi Mugimenduak Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa babesteko deitzen dituen mobilizazioetan parte hartzea GONBIDATZEN ditugu euskal herritarrek.